


# Informazio gida **LAN-ISTRIPUA ATZERRIAN**



# Lan-istripua atzerrian: Zer egin



## Norengana jo behar dut?

Osasun-asistentzia koordinatzeko harremanetarako  
telefonoa: +34 94 425 63 98



## EOT-rekin osasun-zentro publiko batera joan beharko da

**Europako Osasun Txartela (EOT)** aurkeztu. Gizarte  
Segurantzaren Diruzaintza Nagusian eskuratu ahal duzu.

# Istripuari buruzko izapideak

## Asistentzia-parteia

- Bidali asistentzia-parteia helbide honetara:  
**asistenciasanitariaexterna@mutualia.es**
- Zehaztu Laneko Istripua zer herrialdetan gertatu den.

## DELTA sistema

DELTA sistemaren bidez izapidetu behar dira atzerrian gertatutako istripuak.

### **Epeak:**

- **Baja eragiten duen istripuak:** Istripua gertatu edo baja medikoa jaso ondoko 5 egun baliodunetan.
- **Baja eragiten ez duen istripuak:** Istripua gertatu ondorengo hileko lehen bost egunetan.

## Istripu larria

Istripu larria edo oso larria gertatuz gero, **lan-administrazioako agintaritzari** jakinarazi beharko zaio (istripua gertatu ondoko 24 orduetan).

## Zalantzarik izanez gero

- Mutualiako Kanpoko Baliabideen Saila.

**944 25 25 86**

- Mutualiako kudeatzaile izendatua.

# Bidai aurretik: Hamabi (12) hilabetetik beherako desplazamenduetarako:

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin izapidetu beharreko dokumentazioa:

## E-101 inprimakia

### Legeria Aplikagarriaren Ziurtagiria.

GSDOko administrazioek ematen dute, ez da beharrezkoa enpresak aurretik betetzea

## Europako Osasun Txartela (EOT)

Ezinbestekoa EBko, EEEko eta Suitzako herrialdeetan osasun-laguntza publikoa jasotzeko, baita Espainiarekin osasun-laguntza barne hartzen duen aldebiko hitzarmena duten herrialdeetan ere.

## TA300 eredua

“Gizarte Segurantzari buruzko legeria aplikagarriari buruzko informazioaren eskaera. Eredua beteko da enpresaburu batek langileren bat jarduera beste herrialde batean egitera aldi baterako igortzen duenean, baldin eta, gizarte-segurantzari buruzko nazioarteko arauak aplikaturik, Espainiako gizarte-segurantzari buruzko araudia aplikagarria bada. Era berean, norberaren konturako langileek ere beteko dute, jarduera beste herrialde batera alde baterako joaten badira eta, nazioarteko arau aplikagarriari jarraikiz, Langile Autonomoen Araubide Bereziko alta oraindik izan badezake. Bete ere egingo dute, baldin eta langileek jarduera besteren edo norberaren kontura egiten badute aldi berean edo txandaka Europar Batasuneko zenbait herrialdetan, Europako Esparru Ekonomikoan eta Suitzan

[Dokumentua](#)

# Europako osasun txartela non eskatu



## Internet

[Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikokoaren bitartez](#)



## Bertaratuta

**Gizarte Segurantzaren Arreta eta Informaziorako Zentroetan** (GSAIZ), aurretiko zita eskatuta, edo Itsasoko Gizarte Institutuaren (IGI) probintzia-zuzendaritzetan edo lokaletan.



## Telefonoz

**901 16 65 65** telefonoa jardunean ari da 9etatik 20ak arte, astelehenetik ostiraletara, jaiegunetan izan ezik.

**\*Txartela ez da eskura ematen, gehienez 10 eguneko epean iritsiko da langilearen etxera.**



# Bidaia aurretik: 12 hilabetetik gorako desplazamenduak eta kasu bereziak

## 12 hilabetetik gorako desplazamenduetarako:

GSDOrekin izapidetu beharreko dokumentazioa:

- **E-102 inprimakia.** Desplazamenduaren edo soldatapekoa ez den jardueraren luzapena”, lau ale (besteren konturako langileentzat), edo hiru ale (norberaren konturako langileentzat), eta igortzea Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari edo enplegua duen herrialdean izendatutako erakundeari. Hark, inprimakiaren B aldean adostasuna agertuta, bi ale itzuliko dizkio enpresaburu eskatzaileari edo bat norberaren konturako langileari, eta beste bat Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari igorriko dio, Espainian izendatutako erakundea baita.

### Dokumentua

- **Europako Osasun Txartela (EOT).**

## Bestelako desplazamenduak eta kasu bereziak

Aurreko kasuetan jasotzen ez diren egoeretarako, [Gizarte Segurantzaren webgunea](#) kontsultatzea gomendatzen da.



# Mutuaren gomendioak



## Segurtasun pribatua

Mutualitateak kontingentzia profesionalak (Lan-Istripuak eta Gaixotasun Profesionalak) barne hartzen ditu, **baina kontingentzia arrunteko prozesuetarako**, gomendatzen dugu enpresak langileentzako **aseguru pribatua** edukitzea.



## Txertoak. Gaixotasun endemikoak.

Langileak gaixotasun endemikoak dauden herrialdeetara bidaltzen dituzten enpresak **Prebentzio Zerbitzuarekin** jarri beharko dira harremanetan, beharrezko diren txertoen berri jasotzeko.



## 900 Linea txartela

Langileak eramatea Bezeroarentzako 24 orduko Arretaren **900 50 60 70** lineako txartela. Txartelean atzeritik deitzeko telefono-zenbakia **+34 944 25 63 98** ageri da.

# EBko herrialdeak, EEE, Suitza eta Aldebiko Hitzarmena osasun-laguntzarekin

**Europako Esparru Ekonomikoa:** Islandia, Liechtenstein eta Norvegia. Suitza. Espainiarekin aldebiko hitzarmena edukita, osasun-asistentzia barne hartuta (Andorra, Brasil, Txile, Maroko\*, Peru\*, Tunisia\*). Hiru herrialdeotan Espainian enplegua/asegurua duten eta hara joandako herrialde horietako langile nazionalak baino ez dute osasun-asistentziarik.

## ✓ Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Europako Osasun Txartela (EOT)
- NANA/Pasaportea (Europaz kanpoko herrialdeak)

## ✓ Osasun Asistentziaren Ordainketa

Langileak **ez du jasotako asistentzia ordaindu behar**, baldin eta zentro sanitario publiko batera joaten bada eta Europako osasun txartela (EOT) aurkezten badu.

Frantzia (salbuespena) Ehuneko 20ko koordainketa sanitarioa dago. Enpresak kostua aurreratuko du, eta gero mutuak ordainduko du.

## Baliteke egoera hauek gertatzea:

### Zentru publikoa EOTrik gabe

Langilea **zentro sanitario publiko batera joan da eta EZ du Europako Osasun Txartela aurkeztu**: Langileak edo enpresak faktura ordainduko du, eta mutuak gero ordainduko dio, dokumentazioa aurkeztu ondotik.

### Zetru pribatua (EOTa aurkeztu edo ez)

Langilea **zentro pribatu batera joan da (EOTa aurkeztu edo ez)**: Langileak edo enpresak ordaindu beharko du asistentzia, eta ez zaio gero ordainduko, betiere mutuak aurrez baimendu ezean. Hil ala biziko larrialdiak alde batera utzita.

# Hitzarmenean osasun-laguntzarik ez duten herrialdeak eta munduko gainerako herrialdeak

Espainiarekin Gizarte Segurantzaren aldebiko hitzarmena duten herrialdeak, asistentzia sanitarioa barne jasota ez dutenean.

Argentina, Australia, Kanada, Kolonbia, AEB, Filipinak, Japonia, Maroko (nazionalitate horretako langileak izan ezik), Mexiko, Paraguay, Dominikar Errepublika, Errusia, Tunisia (Tunisiako nazionalitatea duten langileak izan ezik), Turkia, Ukraina, Uruguai

**Munduko gainerako herrialdeak, Espainiarekin Gizarte Segurantzako hitzarmenik gabekoak.**

## ✓ Norengana jo behar dut?

- Osasun-asistentzia koordinatzeko harremanetarako telefonoa:  
**+34 94 425 63 98**
- Langilea zentro sanitario publiko batera joan beharko da.

## ✓ Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- NANA/PASAPORTEA

## ✓ Osasun asistentziaren ORDAINKETA

Langileak edo enpresak jasotako asistentzia ordaindu behar du.

Gerora, asistentzia medikoaren egiaztagiriekin, Mutuari ordainketa eskatu behar dio, laneko kontingentzia egiaztatu ondotik.

# Ohiko galderak

## ESTALDURA

**Laneko Istripurik gertatuz gero, barne hartuta al daude prestazio sanitarioak eta ekonomikoak munduko herrialde guztietan?**

Bai.

**Autonomia banaiz eta mutuekin kontingentzia profesionalen estaldura kontratatuta badut, ba al dut estaldura sanitario eta ekonomikorik?**

Bai.

## ASISTENTZIA SANITARIOAREN ORDAINKETA

**Zein da asistentzia sanitarioaren kostua atzerrian?**

Zerbitzuak ez dakar kostu gehigarririk, gizarte-segurantzari laneko istripu eta gaixotasun profesionalarengatik egindako kotizazioaren barruan sartzen baita.

**Zer dokumentazio eman behar dizkigu mutuak asistentziaren kostua aurreratu badute?**

Arreta emandako ospitalean egindako jatorrizko fakturak, ospitalerako bidaia (busa, metroa, taxia eta abar).

**Laneko Istripua Europako Ekonomia Erkidegoko edo Europako Esparru Ekonomikoko herrialde batean edo gizarte-segurantzen arteko aldebiko hitzarmena duen batean, zentro pribatu batera joanez gero, aurreratu behar al du enpresak/langileak asistentziaren kostua?**

Bai, eta gero mutuari erreklamatu, baina baliteke ez ordaintzea hil ala biziko larrialdia ez izateagatik

**Zentro pribatu batera joanez gero, mutuak hartu al du bere gain faktura? Bai, Mutualiak hartuko du bere gain, baina zer kasutan?**

Urgentzia izan denean edo kasu guztietan? **+34 944 25 63 98**  
lineara deituta esaten dizkiguten zentroetara joan beharra dago, ezin da edozein zentro pribatutara joan.

# Ohiko galderak

## PAGO de la ASISTENCIA SANITARIA

**Laneko istripurik gertatuz gero, langilea zentro publiko batera EOT (Europako Osasun Txartela) gabe, aurreratutako behar al du asistentziaren kostua?**

Bai.

**Laneko istripua ez bada eta aseguru pribaturik eduki gabe asistentzia ematen badiote, nori erreklamatu behar dio asistentziaren kostua?**

Gizarte Segurantzari erreklamatzeko saia daiteke.

**aldin eta langile batek istripu larri bat badu eta denbora luzean ospitaleratuta egon behar bada, ordainduko al du mutuak senide bat joatea istripua gertatutako herrialdera? Hala bada, estaldurak barne hartzen al ditu ostalua, otordua eta ospitalerako joan-etorriak?**

Gastuak Prestazio Berezien Batzordearen bitartez bideratzen dira eta eskaera aurkeztu behar da.

## ABERRIRATZEA

**langile batek bere herrialdera itzuli nahi badu oraindik bajaran egonik eta mutuako medikuak baimendu gabe. Barne hartzen al du estaldurak lekualdaketa?**

Ez, mutuako zerbitzu medikoek erabakitzen dituzte lekualdaketa eta aberriratze guztiak.